

AKUARELA (AURRERATUA)

Jarduera

Dagoeneko teknika honen oinarritzko ezagutzak dituztenentzat eta proiektu konplexuagoetan sakontzeko asmoa dutenentzat.

Deskribapena

Natura hilak, argazkiak eta laminak landuko dira, hastapeneko ereduak baino zailtasun handiagokoak. Ikasle bakoitzaren gabezia teknikoak aztertuko dira, hobetzeko helburuarekin.

Helburuak

- Ikaslearen irudimen- eta diziplina-gaitasuna garatzea.
- Akuarelaren munduan sakontzea.
- Herritarrek parte hartzeko guneak sortzea.
- Herritarren kultura-kezkak asetzea.

Nori zuzendua

Helduak.

Ikasleak eraman beharreko materiala

Akuarelak, akuarelarako papera, kristalezko potoa, paleta, akuarelarako pintzelak 6 eta 16 zenbakikoak eta arkatza. Pertsona bakoitzak bere proiekturako behar duen material espezifikoa eramango du, eta ezingo da Kultur Etxean utzi.

Prokulturrako irakasleen eskutik.